

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1/2026 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, otsailaren 10ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailea aldatzeari, Zerga Bereziei buruzkoa**

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 33. artikulua xedatzen duenez, zerga bereziak zerga itunduak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkie.

Abenduaren 20ko 7/2024 Legearen bidez zerga osagarri bat ezartzen da talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxienerako zergapetze maila globala bermatzeko, bai eta finantza erakunde jakin batzuen interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga bat eta zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga bat ere, eta beste zerga arau batzuk aldatzen dira. Lege horrek aldaketak sartzan ditu zerga berezietan, eta beren foru araudian txertatu behar dira.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Zerga bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen aldaketa.

Aldaketa hauek egiten dira Zerga bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailean (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 3. artikulua 4. apartatua gehitzen da; hona testua:

“4. Zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga.”

Bi. 4. artikulua 32. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“32. “Zergarik gabeko dendak”: Espainiako penintsula lurraldeko edo Balear uharteetako aireportu eta portuetako establezimenduak, bidaiariak ontziratzeko edo hegazkineratzeko, igarotzeko edo iristeko aduana-kontrolpeko eremuan kokatutakoak, segurtasun kontrola eta/edo sartzeko pasaporte kontrola gainditu ondoren; establezimendu horietan, arau bidez ezarritako baldintzei lotuta, zergarik gabeko edari alkoholduak, tabako laboreak, zigarreta elektronikotarako likidoak edo nikotinadun beste produktu batzuk ematen zaizkie hirugarren herrialde edo lurralde batera hegazkinez edo itsasontziz doazen bidaiariei, eta haiek beren bagaje moduan daramatzate.”

Hiru. 5. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Aurreko apartatuetan ezartzen denak ez du eragozten dekretu arauemaile honen 23., 40. eta 65. artikuluetan xedatzen dena.”

Lau. 7. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Dekretu arauemaile honen 23., 28., 37., 40. eta 67. artikuluetan ezartzen dena gorabehera, zerga une hauetan sortuko da:”

Bost. 9. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Dekretu arauemaile honen 21., 42., 51., 61. eta 69 ter artikuluetan ezartzen dena gorabehera, salbuetsita egongo dira, ezartzen diren araudiaren baldintzen arabera, fabrikazioaren gaineko zerga bereziak aplikatzen zaizkien produktuaren fabrikazioa eta inportazioa, baldin eta honetarako erabiltzen badira:”

Sei. 10. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Dekretu arauemaile honen 9., 17., 22., 23., 40., 43., 52., 62. eta 69 quater artikuluetan ezartzen dena gorabehera, eta araudiak ezarritako baldintzak betez gero, honako hauek fabrikazioaren gaineko zerga berezien itzulketarako eskubidea edukiko dute:”

Zazpi. 15. artikulua 5. eta 9. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“5. 10.1.c) artikuluan, 22.c) artikuluan eta 40.3 artikuluan, 52.d) artikuluan, 62.b) artikuluan eta 69 quater b) artikuluan ezartzen dena gorabehera, bidaltzaile izateko baimena duen gordailuzainari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hartzaileari entregatu ezin izan zaizkion produktuak jatorrizko establezimendura berriz sartzen badira eta salbuespena aplikatzen zaien produktuak dauden establezimenduaren jarduera bertan behera uzten bada, ezin izango dira fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden produktuak lantegietan eta zerga gordailuetan sartu, aurretik zerga ordaindu beharra sortu bada.”

“9. Aurreko apartatuaren e) letra aplikatu ahal izateko, produktuek merkataritzako helburua dutela ulertuko da, aurkako frogarik izan ezean, baldin eta kopurua honako hauek baino handiago bada:

a) Tabako laboreak:

1. Zigarretak, 800 unitate.
2. Zigarretak, 400 unitate.
3. Zigarretak, 200 unitate.
4. Tabakoaren inguruko gainontzeko lanak, kilogramo 1.

b) Edari alkoholikoak:

1. Eratorritako edariak, 10 litro.
2. Bitarteko produktuak, 20 litro.
3. Ardoak eta hartzitutako edariak, 90 litro.
4. Garagardoak, 110 litro.

c) Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga.

1. Zigarreta elektronikoetarako likidoak: 40 mililitro.
2. Nikotina poltsak: 400 unitate.
3. Nikotinadun beste produktu batzuk: 500 gramo.”

Zortzi. 60. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Zerga tarifa honen arabera eskatuko da:

1. epigrafea. Puruak eta purutxoak: ehuneko 15,8ko karga, hurrengo paragrafoan ezartzen dena aplikatu behar denean izan ezik.

Zergaren karga tasa bakarria ezin da izan hau baino gutxiago: 47 euro 1.000 unitateko.

2. epigrafea. Zigarretak: hurrengo paragrafoan ezartzen dena aplikatu behar den kasuetan izan ezik, zigarretei karga tasa hauek aplikatuko zaizkie aldi berean:

- a) Tasa proportzionala: ehuneko 48,5.
- b) Tasa espezifikoa: 33,50 euro 1.000 zigarretako.

Zergaren karga tasa bakarria ezin da izan hau baino gutxiago: 150 euro 1.000 zigarretako.

3. epigrafea. Biltzeko tabako xehea: hurrengo paragrafoan ezartzen dena aplikatu behar den kasuetan izan ezik, biltzeko tabako xeheari karga tasa hauek aplikatuko zaizkio aldi berean:

- a) Tasa proportzionala: ehuneko 37,68.
- b) Tasa espezifikoa: 33,4 euro kilogramoko.

Zergaren karga tasa bakarria ezin da izan hau baino gutxiago: 112,5 euro kilogramoko.

4. epigrafea. Gainerako tabako laboreak: ehuneko 34.

Gainerako tabako laboreen gaineko karga tasa bakarria 30 euro kilogramoko izango da, baldin eta aurreko paragrafoan ezartzen den tasa aplikatzearen ondoriozko kuota tasa bakar horren zenbatekoa baino gutxiago bada.”

Bederatzi. I. tituluaren IX. kapitulua aldatzen da eta honela geratzen da:

#### “IX. KAPITULUA

#### ZIGARRETA ELEKTRONIKOETARAKO LIKIDOEN ETATABAKOAREKIN LOTUTAKO BESTE PRODUKTU BATZUEN GAINEKO ZERGA

##### **64. artikulua. Eremu objektiboa**

1. Zerga honen eremu objektiboan honako hauek daude, botikatzat hartu ezean: zigarreta elektronikoetarako likidoak, nikotina poltsak eta tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan ez dauden nikotinadun beste produktu batzuk.

2. Zerga honen ondorioetarako, zigarreta elektronikoetarako likidoak dira zigarreta elektronikoetan edo antzeko lurrungailuetan edo zigarreta elektronikoak edo antzeko lurrungailuak kargatzeko erabil daitezkeen likidoak, nikotinadunak zein nikotina gabeak.

3. Hauxe da zigarreta elektronikoa: ahoko baten edo beste osagai baten bitartez lurruna kontsumitzeko erabil daitezkeen produktua, kartutxoa edo biltegia daukana, edo ez kartutxorik ez biltegerik ez daukana, erabili ondoren botatzeko direnak edo ontzi edo biltegi baten bitartez kargatu daitezkeenak, edo erabilera bakarreko kartutxoekin kargatu daitezkeenak.

4. Hauxe da nikotina poltsa: ahotik hartzen den nikotinadun produktua (nikotina zuntz begetalekin edo antzeko substratu batekin nahasita egoten da), tabakorik ez daukana eta poltsa edo poltsatxo porotsuetan edo antzeko formatu batean aurkezten dena.

5. Zerga honen ondorioetarako, nikotinadun beste produktu batzuk dira azken kontsumorako prestatutako produktu nikotinadunak, tabakorik ez daukatenak, aurreko apartatuan adierazitako nikotina poltsak eta 1. apartatuan zehazten diren zigarreta elektronikoetarako likidoak ez beste batzuk.

##### **65. artikulua. Zerga egitatea**

5. artikuluan ezarritakoaz gain, zergaren kargapean egongo da zergaren eremu objektiboko produktuak barruko lurralde eremuan sartzea Batasuneko beste estatu batzuetatik.

Zergaren kargapeko produktuak barruko lurralde eremuan sartzen diren tokitik hartzaileak jasotzen dituen tokiraino zirkulatu eta edukitzeko merkataritza agiria beharko da; agiri horretan ondo zehaztu behar dira noiz hasi den bidalketa, nor den bidaltzailea, nor den hartzailea, eta zer eta zenbat garraiatzen den.

**66. artikulua. Zergaren kargapean ez dagoena**

Ez dago zergaren kargapean zigarreta elektronikoetarako likidoak, nikotina poltsak edo nikotinadun beste produktu batzuk barruko lurralde eremuan sartzea, dekretu arauemaile honen 6. artikuluan arautzen diren kasuetan.

**67. artikulua. Sortzapena**

Dekretu arauemaile honen 7. artikuluan ezartzen denaz gainera, zergaren kargapeko produkturen bat barruko lurraldean sartzen bada, hartzaileak lurralde horretan jasotzen duenean sortuko da zerga. Hala ere, produktua zuzenean sartzen bada fabrika edo zerga gordailu batean, sarrera etendura araubidean egingo da.

**68. artikulua. Zergadunak**

1. Dekretu arauemaile honen 8. artikuluan ezartzen denaz gainera, zergaren kargapeko produkturen bat barruko lurralde eremuan sartzen denean, bidaltzailea izango da zergaduna, produktua merkataritzarako sartzen denean izan ezik, kasu horretan produktuaren hartzailea izango baita zergaduna.

Zergaren kargapeko produktuak barruko lurralde eremuan ematea errazten duten plataforma elektronikoen titularrak bidaltzaileztat hartuko dira.

2. Halaber, zergadunak izango dira Batasuneko lurralde eremutik, barnekoa ez bestetik, datozen bidaiariak ere, zergaren kargapeko produkturen bat sartzen dutenean, berek gidatzen dutela.

**69. artikulua. Zerga oinarria**

1. Zerga oinarria honako hau izango da: zigarreta elektronikoetarako likidoen bolumena, mililitroetan adierazia; nikotina poltsen eta nikotinadun beste produktu batzuen edukiaren pisua, gramoetan adierazia.

2. Bolumena edo pisua zenbaki hamartar batez adierazten bada eta lehen zenbaki hamartarra bosta edo hortik gorakoa bada, goitik biribilduko da. Gainerako kasuetan, behetik biribilduko da.

**69 bis artikulua. Zerga tasa**

Ondoko zerga tasak aplikatuz eskatuko da zerga:

1. epigrafea. Zigarreta elektronikoetarako nikotinarik gabeko likidoa, edo gehienez 15 nikotina miligramo dituena mililitro produktuko: 0,15 euro mililitroko.

2. epigrafea. Zigarreta elektronikoetarako likidoa, mililitro produktuko 15 nikotina miligramo baino gehiago dauzkana: 0,20 euro mililitroko.

3. epigrafea. Nikotina poltsak: 0,10 euro gramoko.

4. epigrafea. Nikotinadun beste produktu batzuk: 0,10 euro gramoko.

**69 ter artikulua. Salbuespenak**

1. Dekretu arauemaile honen 9. artikuluan ezartzen denaz gainera, honako hauek ere salbuetsita egongo dira, erregelamenduz ezartzen denaren arabera:

a) Beste lurralde batetik datorren hamazazpi urtetik gorako bidaiariak barruko lurralde eremura inportatzea edo sartzea zergaren kargapeko produktu bat, gidaria bera dela, honako kopuru hauek gainditu ezean: 20 mililitro zigarreta elektronikoetarako likido, 200 nikotina poltsa edo 200 gramo nikotinadun produktu.

b) Noizean behin, beste lurralde batetik datorren herritar batek barruko lurralde eremura inportatzea edo sartzea zergaren kargapeko produktu bat, beste herritar bati emateko, dirurik ordaindu gabe, honako kopuru hauek gainditu ezean: 10 mililitro zigarreta elektronikoetarako likido, 30 nikotina poltsa edo 150 gramo nikotinadun produktu.

c) Zergaren kargapeko produktu bat barruko lurralde eremuan fabrikatzea edo hara inportatzea edo sartzea, gero Batasuneko lurraldera bidaltzen bada eta etendura araubidean badago. Horrelakoetan, araubide hori azkendutzat joko da.

d) Zergaren kargapeko produktu bat barruko lurralde eremuan fabrikatzea edo fabrika edo gordailu fiskaletatik hara inportatzea edo sartzea, gero produktuen analisi zientifikoak edo kalitatearekin lotutakoak egiteko erabiltzen bada.

2. Orobat, salbuetsita egongo da zergaren kargapeko produktuak barruko lurralde eremuan fabrikatzea eta hara inportatzea edo sartzea, gero zergarik gabeko dendetan saltzen badira eta barruko lurralde eremutik kanpo airez edo itsasoz doazen bidaiariek beren ekipaje pertsonalean eramaten badituzte.

3. Zergaren kargapeko produktuak barruko lurralde eremuan sartzea zergatik salbuetsita egongo da, baldin eta dekretu arauemaile honen 9. artikulua 1. apartatuan ezartzen diren xedeetarako erabiltzen badira.

#### **69 quater artikulua. Itzulketak**

Dekretu arauemaile honen 10. artikulua 1. apartatuaren a) eta b) letretan ezartzen denaz gainera, honako hauek zergaren kuotak itzultzeko eskubidea edukiko dute (erregelamenduz ezarriko da nola eta zer baldintza bete beharko diren):

a) Zigarreta elektronikoetarako likidoen, nikotina poltsen edo nikotinadun beste produktu batzuen jabeek, produktu horiek Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen badituzte.

b) Zigarreta elektronikoetarako likidoen, nikotina poltsen edo nikotinadun beste produktu batzuen jabeek, produktu horiek fabrikara itzultzen badituzte birziklatzeko.

c) Zergaren kargapeko produkturen bat barruko lurralde eremutik Batasuneko beste estatu baten lurraldera bidaltzen dutenek.

Kontrakorik frogatu ezean, ulertuko da produktua barruko lurralde eremutik kanpora bidali dela, ematea balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita badago, Batasunaren barruko ematea delako, zerga horren araudian ezartzen denari jarraikiz.

#### **69 quinquies artikulua. Batasunaren barruko zirkulazioari buruzko xedapen bereziak**

Dekretu arauemaile honen I. tituluaren I. kapituluaren Batasunaren barruko zirkulazioari buruz bildutako xedapenak ez zaizkio aplikatuko zerga honi. Hain zuzen ere:

a) 4. artikulua 8., 10., 11., 12., 14., 15., 16., 27. eta 34. apartatuak.

b) 7. artikulua 1. apartatuaren c), d), f), g), i) eta m) letrak.

c) 8. artikulua 2. apartatuaren c), d) eta e) letrak eta 3., 4., 6. eta 9. apartatuak.

d) 10. artikulua 1. apartatuaren c), d) eta e) letrak.

e) 13. artikulua 2. apartatua.

f) 15. artikulua 7. apartatua.

g) 16. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuak.

h) 17. artikulua.”

#### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Preska fiskaleko dekretu arauemaile hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 10a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**